



## DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ZINEMALDIAN PARTEHARTZEN DUTEN 18 FILMA EUROPAKO BATZORDEAREN MEDIA PROGRAMAREN LAGUNTZA JASO DUTE



Donostiako Nazioarteko Zinemaldian partehartzen duten **18 filma** Europako Batzordeak sustatutako **MEDIA** programaren laguntza jaso dute. Europako ikus-entzunezko sektorea babesteko programa honek 2007-2013 urte artean 755 milioi eurotako aurrekontua du.


Zinemaldian partehartzen duten 18 filma hauei eskainitako laguntzaz gain, MEDIA programak **Industriaren Kluba** (The Industry Club) ekimena babesten du. Zinemaldian partehartzen duten industriako profesional, erosle eta saltzailei zuzendutako ekimena da hauxe.

Halaber, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko aurtengo **Zinema Eraikitzen** sailak (Cine en Construcción, gazteleraz) ere Europako babesa jaso du. Atal honek filmatuta egon arren, postprodukzioan arazoak dituzten Hegoamerikako fikziozko film luzeak bukatzea du helburu. Jasotako babesa MEDIA programaren barruan aurkitzen den MEDIAMundus ekimenaren bitartez gauzatzen da.

MEDIA programaren babesa jaso duten Donostiako nazioarteko zinemaldian partehartzen duten 18 filma honako hauek dira:

- **Sail Ofiziala:** Americano (Frantzia), Happy end (Suedia), Los pasos dobles (Espainia), La voz dormida (Espainia).
- **Zabaltegi – Perlak:** The artist (Frantzia), Et maintenant on va où? (Frantzia), Le havre (Finlandia), Pina (Alemania), Tyrannosaur (Erresuma Batua), L'envahisseur (Belgica), Shame (Erresuma Batua)
- **Belodromoa:** Verbo (Espainia).
- **Made in Spain:** Balada triste de trompeta (Espainia), Blackthorn (Espainia), Primos (Espainia), Torrente 4 (Espainia).
- **Culinary Zinema:** Les Émotifs anonymes (Frantzia y Belgica), Perfect sense (Erresuma Batua, Alemania eta Danimarka).





### The Industry Club

The Industry Club Zinemaldiaren harira industriako profesionalentzat, erosleentzat eta saltzaileentzat propio sortutako bulegoa da. Bilerak egiteko eta filmak ikusteko toki bat da, filmatutako materialak edo produkzio bidean daudenak ikusteko aukera ematen duena. Tratu pertsonalizatuaren bidez, laguntza eskaintzen dugu egin beharreko harremanak ohiko merkatuan baino lan eremu lasaiagoan eta atseginagoan egiteko.

### Zinema eraikitzen (*Cine en Construcción, gaztelerez*)

Zinema eraikitzen Donostia Zinemaldiaren eta Tolouss-ako (Frantzia) Rencontres Cinémas d'Amérique Latine ekitaldiaren arteko ekimena da. Filmatuta egon arren, postprodukzioan arazoak dituzten Hegoamerikako fikziozko film luzeak bukatzea du helburu. Horretarako, nazioarteko profesional talde baten aurrean aurkeztuko dituzte, filmak haien laguntzarekin amaitu ahal izateko.



Urtean bi data zehazten dira, hain zuzen ere bi zinema jaialdi horien inguruan (Toulouse-n martxoan eta Donostian irailean).

### MEDIA eta MEDIAMundus programak



MEDIA programak bereizitako zazpi ardatzetan garatzen du politika eta urtean zehar laguntza-deialdiak antolatzen ditu: Profesionalen trebakuntza, Ikus-entzunezko lanen garapena eta produkzioa, Filmen banaketa, Jaialdiak eta azokak, Sustapena, Teknologia berriak eta Emanaldia

MEDIA programaren 755 milioi euroko aurrekontua 2007-2013 denboraldiari dagokio. Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusian jasotako programa komunitarioa da.



MEDIAMundus MEDIA programaren barruan dagoen beste herrialdeetako profesionalekin elkarlanean aritzeko ekimena da. MEDIAMundus ekimenaren bitartez Europako Batzordeak Europako eta beste herrialdeetako profesionalen arteko proiektuak sustatzen ditu.

#### Informazio gehiago:

[http://ec.europa.eu/culture/media/programme/docs/overview/news/san-sebastian-2011\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/culture/media/programme/docs/overview/news/san-sebastian-2011_en.pdf)

<http://www.sansebastianfestival.com/in/pagina.php?ap=7&id=14>

[http://ec.europa.eu/culture/media/mundus/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/culture/media/mundus/index_en.htm)

<http://www.zineuskadi.eu/eu/inicio-euskera>